

Topalekua

106 zk. 2021eko apirila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN KONTUEK % 2,14ko IGOERA IZANGO DUTE, AURREKO EKITALDIAREN ALDERATUTA

Gizarte Kontseiluak 437,37 milioi euroko aurrekontua onartu du UPV/EHUren aurtengo ekitaldirako

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren osoko bilkura izan zen apirilaren 21ean Bilbon, eta unibertsitatearen 2021eko aurrekontua onetsi zuten. UPV/EHUK 437,37 milioi euro izango ditu orotara, iazko ekitaldian baino % 2,14 gehiago.

UPV/EHUren 2021eko aurrekontuak jarraitu egiten dio 2013an hasitako etengabeko goranzko joerari, eta alden du egiten da 2011 eta 2013 bitartean izaniko beherakadetatik.


Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak aurrekontua onartzea erabaki zuen, aztertu ostean UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak martxoaren 18an onetsitako proiektua eta Ekonomia eta Finantza Batzordeak hari buruz egindako txostena. Txosten horrek berritasun nagusiak aztertzen ditu, eta analisi ekonomiko-finantzario luze-zabala egiten du, kapituluak, programak eta gastu-unitateak kontuan izanda.

Kapituluen araberako azterketan jasota dagoenez, UPV/EHUK honela antolatuko ditu diru-partidak 2021ean:

- 332,7 milioi euro **langileen gastuetara**, guztizkoaren % 76 eta 2020an baino % 1,18 gehiago.
- 76,28 milioi euro **funtzionamendu-gastuetara**, guztizkoaren % 17,44 eta iaz baino % 2,36 gehiago.
- 24,13 milioi euro **inbertsioetara**, aurrekontuaren % 5,51 eta 2020ko aurrekontuan baino % 22,77 gehiago. Kapitulu horretan izaniko areagotzearen arrazoia Inbertsio eta Azpiegituretako Hainbat Urtearako Planari dagokio, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria altxatzeko Bilboko Basurtuko ospitalearen ondoan.
- Finantza-gastuak, transferentziak, dirulaguntzak eta Gizarte Kontseiluaren aurrekontua dira gainerakoak.


*Programen araberako azterketari dagokionez, hirugarrenean ageri da alderdirik azpimarragarriena (Administrazio Kudeaketa eta Gastu Orokorrak), zeinaren diru-sarrerak eta gastuak 7,3 milioi euro eta 5 milioi euro areagotu baitira, hurrenez hurren. Horretarako arrazoiaren artean ageri dira, batetik, ordainsarien igoera eta, bestetik, programa honetan 2020an baino 3,5 milioi euro gehiago jasotzen direla *Administrazio eta Zerbitzuetako langileen* kostuari loturik, zeinak unibertsitatearen aurrekontuak finantzatzeko baitira.*

AURREKONTUAREN BILAKAERA, 2013-2021




(1. orritik dator)

UPV/EHU-REN FINANTZAKETAREN BILAKAERA, 2013-2021



AURREKONTUAN BILDURIKO GASTUEN BILAKAERA, 2013-2021



Oharra: 2013an zuzen sailkatu zen langile-kostua –batez ere ikertzaileena–, aurreko urteetan funtzionamendu-gastutzat jasotzen baitzen eragindako finantzaketarekin.

Diru-sarreraren partidei dagokienez, *Kapital-transferentzietan* izaniko igoera nabarmendu behar da, 2020an 3,3 milioi euro izatetik 2021ean 17,4 milioi euro izatera igaro baita (14,1 milioi euro gehiago). Areagotze hori, nagusiki, programa kontratuetarako ekarpena eskualdatu izanaren emaitza da, lehen *transferentzia arruntetan* baitzegoen jasota, eta orain, berriz, *kapital-transferentzietan*.

Finantzaketaren joera

Jasotako transferentzia arruntek aurreko urtearekin alderatuta behera egin badute ere (2020an 371,4 milioi euro izatetik 2021ean 366,8 milioi euro izatera igaro dira), **unibertsitatearen finantzaketa-iturri nagusia** izaten jarraitzen dute (% 84).

Murrizketa horren arrazoia honako hau da: programa kontratuak (9 milioi euro) kapital-transferentzietara intsuldatu direla. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ekarpen handiagoa egin du (4,4 milioi euro); hori horrela, 9 milioi eurotik 4,6 milioi eurora jaisten da murrizketa.

Tasa akademikoak UPV/EHU finantzatzen duten diru-sarreraren % 12 baino ez dira, iazkoaren antzeko ehunekoa (ikus finantzaketaren bilakaerari buruzko grafikoa).

Gastuen progresioa

Langileen gastuen partidak UPV/EHUren aurrekontuen hiru laurden baino gehiago hartzen ditu, eta, urteetan aurrera egin ahala, areagotu egin da haren pisua: aurtengo ekitaldian, % 76ra iritsi da. Partida hori pixkanaka handitu da 2008az geroztik, eta gainerako gastuak, berriz, mantendu egin dira, goiko grafikoa ikus daitekeen bezala.

Langileen gastuei dagokienez, *funtzionarioen* partida 2,6 milioi euro jaitsi da, eta langile lan-kontratudunena, aldiz, 4,7 milioi euro areagotu. Horren arrazoia da, batez ere, plaza kopurua murriztu egin dela katedradunek eta titularrek erretiroa hartu izanagatik, eta kontratazio berriak langile lan-kontratudunei dagozkiela (agregatuak, irakasle atxikiak eta AZPko langileak).

2009ko ekitaldiaz geroztik, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko funtzionarioen partidak behera egin du, eta langile lan-kontratudunen partida, berriz, ia ehuneko laurogeita hamazazpi areagotu da, 2009an 57,4 milioi euro izatetik azken aurrekontu honetan 113 milioi euro izatera igaro baita.

Ezarritako, aldatutako eta kendutako titulazioak

Apirilaren 21eko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak erabaki zuen, halaber, Hezkuntza Sailari proposatzea **ezar ditzala** datozen ikasturterako gradu- eta master-titulazio ofizialak. Zehazki, berriturik geratu dira Erasmus Mundus unibertsitate-master hauek: Itsas Ingurumena eta Baliabideak, Itsas Baliabide Biologikoak eta Energia Berriztagarriak Itsas Ingurunean.

Aldatu egingo dira, batetik, Giza Nutrizio eta Dietetikako Gradua eta, bestetik, Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berriazko Didaktikak masterra, baita Teknologia, Ikasketak eta Hezkuntzako masterra ere

Ezabatu egingo dira Hizkuntza Politika eta Plangintzako unibertsitate-masterra eta Turismo Sektoroko Diseinu Berrikuntzakoak.

Ikasketak hasita dauzkaten ikasleek bermaturik dauzkate aplikatzeak zaizkien deialdi guztiak.

Alzheimerri eta parkinsonari aurre egiteko dohaintza

Gai-zerrendako beste puntu batean, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak onetsi zuen enkante bidez besterentzea UPV/EHUri dohaintzan emandako bi higiezin. Batetik, Bilbon kokaturiko garaje-partzela bat, eta 31,40 metro koadroko lonja bat Sopolako Larrabasterra auzoan. Biak dira unibertsitatearen jabari pribatuko ondasunak edo ondare-ondasunak.

Enkantean lortzen den zenbatekoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak alzheimerraren eta parkinsonaren alorretan egiten dituen ikerketak finantzatzeko erabiliko da, dohaintza-emaileak azaldutako nahiarri jarraituz.

Gizarte Kontseiluaren 2021eko martxoaren 24ko osoko bilkura

Bestalde, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak, Çmartxoaren 24an Bilbon egindako osoko bilkuran, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarri buruzko hainbat erabaki hartu zituen, beste hainbat auziren artean.


UPV/EHU AGERI DA EUSKADIKO UNIBERTSITATE-PRODUKZIO ZIENTIFIKOAREN BURU ARGITALPEN KOPURUAN

Euskal Autonomia Erkidegoko 25 eta 64 urte bitarteko goi-mailako tituludunen proportzioa Espainiako handiena da

CYD Fundazioak *Las Universidades españolas. Una perspectiva autonómica. 2020* azken txostenean jasotzen duenez (Espainiako unibertsitatea. Ikuspegi autonomiko bat. 2020), emaitzak oso positiboak dira 25 eta 64 urte bitarteko biztanleetan, lan-merkatuari dagokionez. Lehenik eta behin, nabarmentzen du Espainiako handiena dela goi-mailako tituludunen proportzioa. Eta, bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko helduek jarraitzen dutela proportzio handienean etengabeko prestakuntza-jarduerak egiten, Nafarroakoekin batera.

UNIBERTSITATE-PRODUKZIO ZIENTIFIKOA (2014-2018)

Bere eremuko lehen kuartileko aldizkarietako argitalpenen %, inpaktu-mailaren arabera



Bikaintasunez gidaturiko %



Oharra: Unibertsitateak gidaturiko dokumentuen portzentajea, eta beren eremuan aipu gehien jaso dituzten % 10aren multzoan ageri direnak.

Iturria: SCImago Taldea, Scopus datuekin.

2014-2018aldian Euskadinegindako **unibertsitate-argitalpen zientifiko** guztietatik, % 88,5 egin ditu UPV/EHUk.

Hala, % 57,90ekin nabarmentzen da UPV/EHU, bere eremuko lehen kuartileko aldizkarietako argitalpenen portzentajea, inpaktu-mailaren arabera. Atzetik ditu Deustuko Unibertsitatea (% 33,06) eta Mondragon Unibertsitatea (% 31,41). Bikaintasunez gidaturiko argitalpenen portzentajea ere buru da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Euskadin, % 8,37rekin (ikus grafikoak).

Oro har, eta kalitateari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek «merezimenduzko lekua dute Espainian hainbat adierazletan, hala nola bikaintasunez gidaturiko argitalpenen ehunekoa (bigarrena) edo beren inpaktu-eremuko lehen kuartileko aldizkarietako argitaratutako dokumentuen ehunekoa (seigarrena)», CyD Fundazioaren aipatutako txostenak jasotzen duenaren arabera.

Lan-merkatua eta laneratzea

Lan-merkatuari dagokionez, CYD Fundazioaren argitalpen horrek egiaztatzen du 25 eta 64 urte bitarteko Euskadiko goi-mailako graduatuek zutela 2019an enplegu-tasarik handiena (% 85,6) eta langabezia-tasarik txikiena (% 4,5) Espainian.

INEren Unibertsitateko Tituludunen Laneratzeari buruzko Inkestatik jasotako laneratzeari buruzko informazio berrienari dagokionez, eta 2013-2014 aldirian gradu-tituluetako egresatuen 2019ko egoera aintzat harturik, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako tituludunena nahiko positiboa da, CYD Fundazioaren iritziz. Lehenik eta behin, Espainiako

laugarren jarduera-tasarik handiena eta laugarren langabezia-tasarik txikiena duelako. Eta, bigarrenik, Nafarroaren atzetik, hileko diru-sarrera garbi handienak lortzen dituztelako. Izan ere, % 30ek baino gehiagok 2.000 euroko soldata garbia lortzen du hilean, eta % 32k 1.500 eta 1.999 euro arteko diru-sarrerak ditu.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, unibertsitate-tituludunen % 80k baino gehiagok autonomia-erkidego berean garatzen dute beren jarduera profesionala, Espainiako laugarren baliorik handiena. Gainera, Euskadi da ikasketak lanaldi osoan jarraitzen dituzten gradu eta master ofizialeko ikasleen proportzio handiena duen hirugarren erkidegoa.

Irakasleak eta ikertzaileak

Fundazio horren txostenaren arabera, «Euskadiko unibertsitate-sistemak ageri du irakasle eta ikertzaileen ratio handiena, administrazio eta zerbitzu-tako langileekiko lanaldi osoko baliokidetasunean».

Ikuspegi kuantitatibotik, euskal unibertsitate-sistema da Espainiako seigarren sistema garrantzitsuena, guztira diren egresatuei edo irakasle eta ikertzaileei erreparatzen badiegu, eta matrikulatutakoei begiratu gero, berriz, zazpigarrena.


Euskadin, kuantitatiboki nabarmentzen da lehendabiziko postuan Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, eta % 75, % 70 eta % 80 inguruko pisu erlatiboak dituzte matrikulatuek, egresatuek eta irakasle eta ikertzaileek, hurrenez hurren.

IKASGELAZ KANPOKOEN HAZKUNDEA ERE JARRAITUA IZANGO DA, BAINA ERRITMOA TXIKIAGOA IZANGO DA ALDI BEREAN

Aurrez aurreko unibertsitate publikoetako matrikulek gora egiten jarraitzen dute, baina goia joko dute 2030 inguruan

«Hezkuntzaren alorreko iraultza aldaketarako nolabaiteko ekaitz perfektua izan da, gizartearen eta gazteen nahietan ez ezik gobernuak (eta gizarteak) eskaintza antolatzen duten gaitasunean ere oinarrituta». Hala jasotzen du Nueva Revistak argitaraturiko *Universitarios en España. Estudio sociodemográfico de su demanda futura (2030-2035)* txostenak (Unibertsitate-ikasleak Espainian. Etorkizuneko haien eskariaren azterketa soziodemografikoa, 2030-2035), zeina Populazioa eta Gizarte Ikerketa Taldeak egin baitu, UNIREk eskatuta.

GRADU IKASLEEN KOPURUAREN PROIEKZIOA FUNTZIO LOGARITMIKOA



Ikerketa horrek bi iturri ditu. Alde batetik, Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duen biztanleriaren kalkulua, adin zehatzaren eta sexuaren arabera. Eta, bestetik, gaur egun dauden unibertsitate-ikasketetako matrikulazio-tasak. Dokumentua baliagarria izan daiteke baliabide eta estrategia zehatzak planifikatzeko, etorkizun hurbilari aurre egiteko.

Populazioa eta Gizarte Ikerketa Taldeak egindako txostenaren arabera, hazkunde-erritmoa jarraitua izango da aurrez aurreko unibertsitateetan 2030era arte, eta apurka beherantz egiteko joera izango du hortik aurrera. Ikasgelaz kanpokoei dagokienez ere, hazkunde etengabea izango da proiektatutako aldi osoan zehar.

Lan honen helburua etorkizun hurbileko unibertsitateko biztanleen egoerara hurbiltzea da, 2030 eta 2035 bitartean. Analiak zehazten duenez, «mugak muga, Espainiako unibertsitate-sistema ondo kokatuta dago unibertsitateen kalitatea finkatzen jarraitzeko, bai eta gizarteari begira duen erabilgarritasuna sendotzen segitzeko ere».

Unibertsitateko biztanle gehienek aurrez aurreko unibertsitate publikoetan egiten dituzte ikasketak, eta beste eskaintzak gutxienek dira. Hala ere, 2000. urtearen aurreko ehuneko laurogeita hamarretik hurbil dagoen pisu horrek behera egin du, eta 2018-2019an unibertsitateko biztanleen % 75-80 izatera iritsi da.

2019-2035 aldian, gradu ikasleen kopuruak hazkunde moderatua izango du, eta erakunde mota guztiei eragingo die, modu desberdinean bada ere. **Funtzio logaritmikoa baliatuz eginiko proiektzioaren** arabera, unibertsitate-ikasleen populazioa 2019an 1,35 milioi ikasle izatetik 2030-2035 bitartean 1,6 milioi izatera igaroko da.

Ikasleen kopuruak goia joko du 2030 inguruan, eta apur bat behera egingo du 2035ean, unibertsitate-ikasketak egiteko adinean dagoen populazio-taldea murrizten hastearen ondorioz.

Positiboagoak dira funtzio potentziala duen proiektiotik eratorritako aldagai horietarako emaitzak, baina, funtsean, aurreko proiektzioarekin lorturikoen tankerakoak.

Ildo nagusiak eta proiektzio orokorrak

Azken hiru hamarkadetan, hezkuntza-hazkunde nabarmena izan dugu, eta zalantzak sortu dira kalitateak ere neurri berean egin ote duen gora. Halaber, nabarmentzekoa da ikasleek arian-arian izaniko feminizazioa ere, zeinak, bide batez, ez baitu ageri agortzeko zantzurik.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdean, gizonetakoak ziren unibertsitate-ikasle gehienak (batez ere unibertsitate publikoetan). Egoera hori aldatu egin zen XX. mendearan amaierarako. 2015etik aurrera, emakumezko ikasleak gizonetakoak baino % 10 eta % 25 inguru gehiago dira, aukeratu-tako irakaskuntza motaren arabera.

Hurrengo 10/15 urteetarako, unibertsitate-sistemaren hazkunde moderatua aurreikusten da, bi alderditan oinarrituta:

- **Sostengu demografikoa.** Eskaria areagotu egingo da, bai gradu-ikasketetan (2030), bai masterretan (2035), eta hori 1997 eta 2008 artean jaiotako kohorteak unibertsitate-iristearekin lotu behar da.
- **Matrikulak mantentzea eta, batzuetan, areagotzea.** Milioi bat eta seihun mila matrikula baino gehiago 2030-35erako, erregistratutako unibertsitate-ikasleen kopururik altuena. Hala, gaitzitu egiten du mende hasieran izaniko gailurra, milioi bat bostehun mila pasatxo lortu baitziren orduan (ikus grafikoak).

GRADU IKASLEEN KOPURUAREN PROIEKZIOA FUNTZIO POTENZIALA

